

BALEIKE



HIRU ANAI

**ITSAS ONDAREA
BERRESKURATZEN**

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com
Tel. 943 865 100
Talasoen ordutegia: Egunero irekita 9:30etik 20:30era
Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia
Zelai
ZUMAI A



Galdona

Denda:
Mendaro marinela, 1
943-14 33 46
Biltegia:
Jose Mari Korta industrigunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
943-86 11 17



Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**



BALEIKE 295

2020-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 4 | Hitz tantak Sara Iburguren
<i>Ainhoa Balenciaga</i> | 31 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Insomnia II</i> |
| 6 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Bizitzaren ekorketa</i> | 33 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Musutxo bat emango?</i> |
| 8 | Hainbat aburu Beñat Lizeaga
Urkidi
<i>Iratzargailua</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena Asier
Hilario
<i>Marea Gora</i> |
| 9 | Errematea Sara Iburguren
<i>"Adituen" esku</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Arantxa Aizpurua Zinkunegi, urrutitik ere beti Zumaia begira</i> |
| 11 | Erreportajea Juan Luis Romatet
<i>Hiru anai batelaren bizitza berria</i> | 42 | Kultura Zumaiaiko udaleko euskara
zerbitzua
<i>"Euskara, bestela ez gara" 9.urtez</i> |
| 18 | Elkarrizketa Onintza Lete Arrieta
<i>Maider Urbietia eta Vanessa
Arbelaitz: Egon egin behar dugu
emakumeok elkarrekin, eta hori izan
dadila gure indargunea: taldea, gu</i> | 43 | Agenda |
| 22 | Erretratua Maria Maya Manterola
<i>Jon Sasiain, harakina</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Nekeak ahazteko liburua</i> |
| 26 | Bazkide kluba | 45 | Nire txanda Miriam Romatet
<i>Kultura eskoletara</i> |
| 28 | Plazan bazan | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Emozioen teoria</i> |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu z/g. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue
Sara Iburguren

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
**Administrazio
arduraduna**
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

Ainhoa Balenciaga

TESTUA: SARA IBARGUREN

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Ainhoa Balenciaga zumaiaarak 13 urte ditu eta txikitatik gustatu izan zaizkio zaldiak. Abenduan, *Irrintzi* izeneko euskal pottoka batekin lehiatu zen Lasarte-Oriako Miracampos zalditegiko saltoen elkarte arteko lehiaketan eta garaipena eskuratu zuen 50 zentimetroko saltoen proban.

Nondik dator zaldiekiko duzun grina hori?

Txikitatik gustatzen zaizkit zaldiak. Oroitzen naiz Igeldora joaten nintzela ponietan ibiltzera, eta, azkenean, zaldien munduari lotu nintzaion.

Noiz eta nola hasi zinen zaldiekin entrenatzen?

Duela hiru urte hasi nintzen *Irrintzi*ekin entrenatzen. Oso gustura nago berarekin; izan ere, asko aurreratu dugu elkarrekin. Saiatzen naiz batzuetan zaldiz aldatzen, baina berarekin daukadan konfiantza ez dut lortu edukitzea beste inorekin.

Non entrenatzen duzu?

Zestoako Sastarrain baserri eskolan entrenatzen dut, baina Arroa Goian beste pista bat daukate eta hara joaten gara normalean.

Nolakoak dira entrenamenduak?

Oso desberdinak denak. Helene Serrano entrenatzaileak asko laguntzen dit; izan ere, prestatuta ekartzen ditu ariketak koaderno batean. Ariketak batzuetan gogorrak izaten dira eta beste batzuetan errazagoak..., denetik egiten dugu. Zenbaitetan, salto batetik bestera zaldiak zenbat oinkada eman ditzakeen zenbatzen dugu ariketa gisa. Beste batzuetan, kurba itxiak dituen zirkuituak egiten ditugu praktikatzeko, eta noizbehinka klase lasaia ere egiten ditugu, saltorik gabe.

Zein da zure erreferentea zaldien munduan?

Alberto Zorzi, italiarra. Hura ere txikitatik hasi zen zaldiekin eta pila bat gustatzen zait. Heleneri esker ezagutu nuen, haren bideo bat erakutsi

zidan eta uste dut oso bikote ona egiten dutela haren zaldiak eta hark. Harengatik jarraitu nuen zaldiekin entrenatzen.

Abenduan garaipena eskuratu zenuen Lasarte-Orian. Gogorra izan al zen?

Hasieran oso urduri nengoen, ia nire lehenengo aldia izan zen eta. Baina hango zaldiekin alderatuta *Irrintzi* daukan bizitasuna inork ez dauka, eta, beraz, 50 zentimetroko saltoen modalitatea erraza izan zen.

80 zentimetroko altuerako proban, aldiz, ezbehar bat gertatu zitzaizun.

Bai, kurba hartu genuen eta hondarra oso zapalduta eta bustia zegoen zaldi asko pasa zirelako handik. Horren ondorioz, *Irrintzi* atzeko hankarekin irristatu zen eta albo baterantz erori ginen biok; baina berehala altxa ginen lurretik eta proba berriz egin genuenean oso ondo atera zen.

Eskubaloian ere jokutzen duzu. Zein kirol duzu nahiago?

Biak asko gustatzen zaizkit. Eskubaloian talde lana egiten dugu eta lagunekin oso ondo moldatzen naiz, baina zaldiekin aritzean animaliekin duzun kontaktua ere oso desberdina da eta oso gustura joaten naiz.

Nola antolatzen zara denera iristeko?

Larunbatean eskubaloiko partidua baldin badaukat, igandean zaldiarekin entrenatzera joaten saiatzen naiz; eta alderantziz. Hala ere, astean behin edo bi aldiz saiatzen naiz Sastarrainera joaten.

Uste al duzu etorkizunean bietako bat utzi beharko duzula?

Ez dakit, agian bai. Zaldien munduan, “Liga del Norte”-ra joatera proposatu didate. Beste zalditegi batzuetara joan behar da eta hilean behin aste bukaera bat kanpoan igaro beharko dut. Beraz, zaila izango da hori eskubaloiarekin eta ikasketekin uztartzea. ■■■



Bizitzaren ekorketa

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Bizitzak pasarte, gertakizun, istorio, kontakizun, bizipen, ospakizun, ekintza batzuk finkatuta uzte dizkigu gure memorian. Batzuek berebiziko garrantzia izango dute; beste batzuk, aldiz, xumeak izango dira, eta oso jende gutxiri axolako zaio. Baina arrazoi bat dela medio izoztuta geratu zaizkigu gure biografian, haren inguruan mugitzen den guztia desagertzen edo difuminatzen den bezala. Hala gertatzen da argazkiko txirrindulariarekin. Kameraren objektiboan finkatuta geratu da. Ez doa ez aurrera, ez atzera; ez da erori ere egiten; geldirik geratu da Arabako Ametzagako basetan. Haren ingurua fokutik kanpo geratu da, asko inportako ez balitzaigu bezala. Ekorketa teknikaren misterioak dira. Zer da inporta duena? Zer geratuko zaie etorkizuneko ikusleei? “Ez zoaz betiko argazkiak ateratzera. Zerbait berezia atera nahi duzu, eta ekorketarena errekurtsio interesgarria da”, dio argazkilariak. Txirrindularia gure begietan finkatuta geratu da, izoztuta. Beste guztia? Bost axola. ■■■

Kamera: Nikon D750.

Objektiboa: Sigma 24/35 f2.

Foku distantzia: 35mm.

Diafragma: f16.

Abiadura: 1/200seg.

ISO: 160.

Arnaitz Rubio Aprea
@arnaitzrubiophoto







Iratzargailua

Goizeko 8ak eta erdiak dira. Galeriako zeldetako mirillak zabaldu eta errekontua hasi dute, banan-banan. Ez dago iratzargailuaren beharrik, zarata sobera dago lo sakonenean dagoen presoa ere esnatzeko. Zurea ireki dute eta segundora itxi; barruan zaude, ez duzu ihes egin.

Handik 15 minutura ate guztiak ireki eta gosaltzera jaitsi zara. Kafesnea, udare bat eta 8 gaileta daude menuan. Gaur, hala ere, espetxeko janaria jateari uko egin diozu, baina ez da baraualdia. Eginak ditugun arren, gaurkoan ez da halakorik izango arrazoia. Goizean esnatu zaituzten haiei pare bat kontu gogorarazi nahi dizkiezu eta gutxienez normalitatetik atera, bai gure eguneroko errutina, baita beraiena ere.

Mahaian eseri eta astebeteko atzerapenarekin heldu diren *Garak* irakurtzeari ekin diozu. Ez dago “Amazon Prime”-rik hemen. Nahiz eta notiziek egunerokotasunetik galdua duten, balioko dute Euskal Herriko panoramari begiratu eta egunari minutuak lapurtzeko.

Tabakoa, kafe bat edo telefono deiak egiteko txartela eskatzera pasatu dira preso sozialak. Gaur eman diezu, egun berezia da. Hala ere ziur naiz biharkoak ere izango duela berezitik zerbait. “Jende xeheari bizitza txikitzeke guneak” (Hedoi Etxarte, *Berrian*) diren bitartean, hobe elkar txikitzen ez baditugu gureak.

Egunkari guztiak irakurri ostean, ilaran jarri txanda hartu eta Telefónicako kabina noiz libratu zain geratu zara. Aste

osoan egin zenitzakeen 8 deietako bat egin duzu. Kontaktuen zerrenda ez da oso luzea, *órdenes del subdirector de seguridad*. Behar handirik ere ez dago, perfume eta benenoak flasko txikitan. 5 minutuko deiak neguko hotz handienak ere uxatzen ditu eta dei hau ere halaxe izan da. Xelebrea, hain denbora gutxian dena kontatzeko dei hauek duten gaitasuna.

Patioko neurri guztiak aztertzeke denbora sobera izan duzu, baita kilometro batzuk egiteko aukera ere, bazkaltzeko ordua heldu den arte. Mahaietan eseri eta konturatu orduko zeldan. Gaur, ordea, urtarrila da eta zeldek ez dituzte neurri berdinak izaten. Telebista piztu duzu, baina ez da eguraldiaz harago Euskal Herriko notiziarik. Euria emana

HAUXE BAI JENEROA!



dago, Bilbon egindako manifestazioek ohitura duten moduan. Baionan zertxobait hobe.

Zapatak busti eta aterkirik eramateko aukerarik ez da Aranjuezen, Puerton edo Mont de Marsanen. Jasotako tanta horiek sortutako elkertasun olatuak biltzeko itsaso erraldoientzat dago lekua, ordea. Tanta bat bera ere ez da sobera eta halaxe gertatzen da urtarileru Bilbon eta Baionan. Maitasunak eta elkertasunak betetzen ditu ume baten baino gehiagoren motxilak. Baita hain umeak ez direnenak eta espetxean egunak, hilabeteak edo urteak daramatzenenak ere.

Guk mundu berri bat daramagu bihotzean eta ez du oraindik amaitu ez den errepresioaren kolorerik.

Gureak gehiago du martxoaren 8ko moretik, urtarilaren 30eko gorritik edo mugimendu ekologistatik.

Bitartean, Andaluziaraino joaten diren autobusetan, hilabetezko azken ostiraletan, *vis a vis* etan eta ongi etorrietan egongo gara. Hutsik ere egin gabe. Negar gasen mende gaudenak ez gaude oker eta iritsiko da iratzargailuak esnatuko gaituen eguna.

Haize berriak heldu dira eta jokoz kanpo daude iraganeko errezeta zaharrak. Gureak Ebro eta Aturri ibaien artean topatu beharko ditugun arren, bai hemen, baita Katalunian ere, mobilizaziotik, imajinaziotik eta elkertasunetik sortuko dira lasterbide berriak.

“Mas no importa –dijo Dick Turpin–, huiremos por la claraboya”. ■

ERREMATEA



SARA IBARGUREN

"Adituen" esku

Bost euroko isuna. Gauza desberdin askorengatik izan daiteke, ezta? Hala pentsatu daiteke. Arrazoia kontatu zidatenean, zur eta lur geratu nintzen. Zumaia tik ez oso urrun, ba omen da mutilen futbol talde bat, bertako kideak futbolariak izateaz gain “adituak” ere badirenak. Dirudienez, haietako batek ligatzen duenean, bost euroko isuna ordaindu behar izaten du futbol taldean.

Baina ez hori bakarrik; izan ere, “adituen” lana orduantxe hasten da: ligatu duenak beste pertsonaren argazkia erakutsi behar izaten die kideei eta horiek “polita” edo “itsusia” den epaitzen dute. Futbol taldeko kideen sententziaren arabera, isuna txikitu edo handitu egiten da.

Ez dakit “aditu” horiek sententzia asko edo gutxi eman behar izaten dituzten eta, beraz, futboleko entrenamenduetan zentratzeko lanpetuegi egoten diren ala ez. Pilatutako diruarekin zer egiten duten ere ez dakit, ezta jakin nahi ere. Umeen kontua dela pentsa dezake norbaitek, baina ez pentsa, adinez, behintzat, ez dira hain umeak. Agian dibertigarria irudituko zaie multen kontu hori; baina gogoia behar da, gero, ligatu ondoren epaiketa horretatik pasatzeko, “adituen” iritzia isunak ordaintzeko ez ezik, beste zerbaitearako balio balu bezala. ■



PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatekx@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



AIZPURUA
LIBRURU
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama

tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKINDEGI
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hoste sistemak

Urola plaza 3-5
tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



bai bidea

Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante

943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)



Bakan

ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakan@euskalnet.net



Basodi
albaitaritza

Albaitaria
Itoki Gormendia

Basadi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinari@basadclinicivet.com
www.basadclinicivet.com

Golez: 11-13 / Arriabak: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbeetan itala
Larrialdiatarako: 605 72 87 07 Etkez ebeko zerbitzua



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Piztak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00



Hiru anai batelaren bizitza berria

Ontzi tradizionalak berreskuratzeko lanetan aritu da Zumaiaiko Beduola Elkartearen sorreratik. Jarduera horiek alde batera utzi gabe, beste proiektu bat du orain eskutan: 1928. urtean egin zuten *Hiru anai* batelaren neurriak eta formak izango dituen erreplika egitea. Hasieratik bukaerara arte egingo duten lehen ontzia izango da, eta aurreikuspenak betetzen badira, behintzat, udazkenean uretaratuko dute.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.



Batelarekin lanean dabilta Beduolako lagunak.

**"MOTORRA HELDU
AURRETIKO AZKEN
TESTIGANTZA DA, ETA
HOR IKUSI NUEN
HAREN HISTORIA JASO
EGIN BEHAR ZELA"**

**BATELAREN FORMAK
DAGOENAKO
DESAGERTUTA DAUDE
BAITA LAN EGITEKO
ERA ERE.**

Hazkunde handia izan du Beduolak 2004. urtean sortu zutenetik gaur egunera arte. Itsas ondarea berreskuratzeko helburuarekin sortu zuten bospasei lagunek elkarte. Gaur egun 40 bazkide ditu eta Axular ibiltokian duen egoitza edo tailerra txiki geratzen zaie batzuetan. Astearteetan elkartzen dira Udalak utzitako lokalean. Lokal estua da, baita luzea ere. Hondoan, lekurik ilunenean, berritu beharreko txalupa batzuk dituzte gordeta. Baita Errenteriako Hibaika klubak emandako bi ontzi ere, besteak beste.

Ate ondoan dago laster uretaratuko duten egurrezko batela, edo haren hastapenak, behintzat. Gero txalupa izango denaren gilak eta zuakerrek itsas animalia baten eskeletoa dirudite, bizkarrezurra eta saiheutsak, alegia. Zarautzen erakutsi zuten batelaren barne estruktura iragan urrian egin zen "Itsasotik herrira" jaialdiaren barruan, Beduolak Munoa plazan izan zuen txokoan.

Eskeletoa gorpuzten hasi dira orain elkarteko lagunak, Xanti Osa arotzak gidatuta. Aurrez berotutako egur zatiak doblatu eta kostiletara giltzatzen hasiak dira. Batela osorik ikusteko oraindik hilabete dezente falta direla badakite elkartekideek. Azken orduko aldaketarik ez bada, behintzat, Zumaian egingo da aurtengo "Itsasotik herrira" jaialdia, eta han aurkeztu nahi dute batela.

Elkarteko bazkide eta Euskal Bateleroen Elkarteko zuzendari den Beñat Ibaietaren "burugogorkeria" dago proiektu honen atzean.

“2013ko apirila aldera *Hiru anai* batelaren inguruan interesa piztu zitzaigun, haren egoera txarra ikusita. Jabeak mantendu ezin eta desegin nahi zuela jakin genuen”, dio Ibaietak ontzi honi buruz prestatutako txosten batean. 1920ko hamarkadan Deban egindako batelak ia ehun urte beteko ditu aurten. Ontzia pasio bihurtu da denborarekin Ibaietarentzat. “Zurgintzako kurtso amaierako proiektua bihurtu zen ontzi hori, edo, behintzat, haren formak gordetzea”, dio.

Akelino Osa (1930-2015) zumaiarrak itsasora ateratzeko erabiltzen zuen ontzia da *Hiru anai*, eta aurretik haren aita Angel Osa Amasena izan zen. Hura zendu zenean pasa zen semearen jабegora. Ibaietak bildutako dokumentazioan jasotzen denez, batela 1928. urtean egin zuen Genaro Osa arotzak, Deban, Getariako Jose Olaskoagarentzat. 375 pezeta balio izan zuen. Bederatzi hilabete geroago, Debako Adrian Iriondori saldu zion diru kopuru beragatik. Garai hartan *Tres hermanos* izena zuen ontzia 1939an heldu zen Zumaira; Angel Osa Amasek 300 pezetaren truke erosi zion Iriondori, eta urte hartako azaroan inskribatu zuen Zumaian. Dokumentazioko hurrengo idatzoharra 1958ko irailekoa da: Angelen seme Akelinok gasolinazko motorra jarri ziola dio dokumentuak.

Hala ezagutu zuen Ibaietak *Hiru anai*, azken urteetan Arroarrekako ibaiertzera lotutako motordun txalupa bezala. “Gero jakin nuen 1939tik 1958ra belan eta arraunean ibili zela, Zumaian. Motorra heldu aurretiko azken testigantza da, eta hor ikusi nuen batelaren historia hori jaso egin behar zela. Ordurako Akelinok 80 urte baino gehiago zituen, eta haren testigantza jaso nahi izan nuen. Amaia plazan eserita zegoen batean hurbildu nintzaion eta galdera batzuk egin nizkion. Hala jakin nituen ontziari buruzko xehetasun gehiago”.



Batela euskal kostaldeko arrantza ontzietan txikiena da. Eginkizun askotarako erabili izan da; arrantzarako edo garraiorako, esaterako. Ontzi handiak itsasora irteterik ez zutenean, bateletan aritzen ziren lanean arrantzaleak portu inguruetan. XX. mendearen hasieran, aisialdiko ontzi gisa erabiltzen zituzten kostaldeko herrietan, eta mende erdirako belaren erabilera baztertu zen, arraunez bakarrik ibili ahal izateko forma egokiagoak egiten hasi zirenean.

Txostenaren arabera, batela 2013ko apirilean eskaini zioten Beduolari. “Baina arazo bat zegoen: ez zen elkarteko atetik sartzen. Egunak joan eta etorri irtenbide bat aurkitu nahian ibili ginen buru-belarri. Ia sei metroko luzera du *Hiru anai* batelak eta ezin genuen haren kargu egin”.

Urte hartako maiatzean, batela ohiko lekuan ez zegoela ohartu ziren. “Ibai bazter guztiak arakatu eta gero, Oikiako erriberan aurkitu genuen, motorra kenduta eta su emateko prest. Tratu batera iritsi ginen motorra eraman zuenarekin: motorrarekin jabea geratu



Xanti Osa, egositako xafлак tolesten.



Laserraren bidez hartutako datuekin prestatu zuten batelaren planoak.

zen, baina kaskoa guk eraman genuen, leheneratzeko asmoarekin”.

Zuloak estalita, lehenbizi Beduara eraman zuten, eta handik Zumaiara. Behin Arranplara igo zutenean, ur azpian geratzen zen zatia garbitu zioten. “Urteak zeramatzan mantentze lanik egin gabe, eta lapazorri eta ostra kantitate ikaragarria zeukan itsatsita”, gogoratu du Ibaietak txostenean.

Ordutik, batera eta bestera ibili da ontzia. “Denboraldi batean Xanti Osaren pabilioiaren kanpoaldean egon zen. Gero, Iparraldera eraman nuen, Euskadi-Akitania egitasmoaren barruan aukera ikusten genuelako dirulaguntza bat jaso eta harekin ontzia berritzeko. Baina handik ere atera egin behar izan genuen, eta Donostiara ekarri nuen. Orain han dago, Donostian, baina zizko eginda; egur guztia ustelduta dauka”, azaldu du Beduolako kideak.

Ibaietaren ustez, *Hiru anairen* egoera txar horren atzean, batetik, mantentze lanen falta dago, eta, bestetik, egurra zuntzarekin estali izana. “1960ko eta 1970eko hamarkadetan ez zekiten egurrezko ontziak mantentzen, eta zuntza erabiltzen hasi ziren. Horrekin mantentze lanak kendu zituzten; bospasei urtean behin hondoa arraskatu, eta kito. *Hiru anaiek* kanpoaldetik emanda dauka, eta barrualdean altura jakin batera arte bakarrik. Horrek bainera antzekoa bihurtu zuen motorra. Gero, gainera, Akelino berak esanda, ontzia hirutan hondoratu zen, eta behin hamabost egunez izan zen ur azpian, erriogan. Zuntza kentzen hasi ginenean, egurra erori egiten zen, hauts bihurtuta”. Desegitera eraman beharko dute, eta Ibaietak nahigabe handia dauka. “Pena handia ematen dit txikitzeak, baina ontziarekin ez dago zer eginik”.

Ontzi originala zaharberritzea ez zen posible, baina, behintzat, txaluparen neurriak jaso nahi izan zituen Ibaietak. “Enrique Lekuona itsas ingeniariaren laguntzarekin egin nuen hori. Albalarekin lan egiten zuen; adibidez, Nao San Juanaren planoak harenak dira. Orain dela ia hiru urte hil zen. Zumaiara etorri zen behin, eta laser baten bidez *Hiru anairen* milaka puntu hartu zituen. Haien bitartez ontziaren planoak diseinatu zituen 2015ean”. Batelean motorra sartzean haren egitura aldatu behar izan zuten. “Motorretik batelera itzuli behar genuela ikusita, Lekeitioko lagun

batek, Gaizka Fernandezek, aurreko diseinua hartu eta aldaketa horiekin moldatu zuen 2016an. Hor jarri genuen martxan batela egiteko proiektua”.

Hiru anai berriak izango dituen formak dagoeneko desagertuta daudela dio Ibaietak, baita lan egiteko era ere. “Ontziak egiteko era ere berreskuratu nahi dugu. Izango dira 40 edo 50 urte Zumaian egurrezko batelik ez dela egin; motorrak agian bai, baina batelik ez. Beduolako bazkideak biderkatu egin dira azken urteotan, eta denon laguntzarekin egingo dugu *Hiru anai* berria”.

Halako proiektu batean behar-beharrezkoa izan ohi da profesional baten laguntza, eta alde horretatik Xanti Osaren kolaborazioa goraipatu du behin eta berriro. “Boluntario talde bat gara gu, eta horregatik Xanti bezalako profesional baten laguntza behar dugu. Asko ari zaigu laguntzen; azken hilabeteotan astero etorri da, aroztegia du, eta guk hemen makina industrialik eduki ezin dugunez, haren laguntza ezinbestekoa da. Gipuzkoan ez da erriberako arotz askorik geratzen, eta Xanti izugarria da. 21 urterekin egurrezko traineru bat egin zuen. 21 urterekin! Inora joan gabe, bakar-bakarrik egin zuen ontzi bat. Trainerillak ere egin izan ditu. Baina ez hori bakarrik: ontzi bat egiteko profesional batek duen ikuspegia ez da boluntario batek izango duena. Zurgintza ikasi dut, eta nire ametsa zen ontzi bat egitea. Orain, Xantirekin ontzigintza ikasten ari gara”.

Ia sei metroko luzera izango du batelak bukatutakoan. “Gure elkartearen ez dago hain batel luzerik. Agian motorren bat egongo da, baina batelik ez. Orain arte ontzi tradizionalak berreskuratzen aritu gara. 2004an sortu genuen elkarte, eta ordutik 15-16 ontzi berritu ditugu. *Juan Pedro*, Abascalenekoa gabarra; *Juan Luis*, *Elena*, *Ramontxu*, *Magallanes*, *Ilunabarra*... Gutxi gorabehera ontzi bat berritu dugu urteko”. Ontzi tradizionalak berritzetik batel berri bat egitera pasako da Beduola, eta hori, Ibaietaren esanetan, “aurrerapausoa” da elkartearentzat.

Beduolaren bilakaera ere nabarmendu du, bai eskuetan dituzten proiektuen aldetik, baita kide egin den lagun kopuruagatik ere.



Beduolako kideak batelean egur xafiak jartzen.



Akelino Osa 'Hiru anai' ontzian.

Elkarteko bazkide kopurua nabarmen hazi da azken urteotan. Hasierako bospasei lagun haietatik gaur egungo 40 bazkidera pasa da Beduola. Denbora honetan beste herrialde batzuetako elkarrekin ere harremanak estutu dituzte. “Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko elkarrekin ezagutu ditugu, Valentziakoak, Murtziakoak, Frantziakoak... Lagunak ere egin ditugu eta itsas jaialdi handietan elkartu gara beraiekin. Ez daude bi elkarte berdin, eta gureak duen berezitasuna da denok

boluntarioak garela”.

Orain arte egindako lana herriarentzat egin dutela nabarmendu du Ibaietak. “Herri bakoitzean egon beharko luke antzeko elkarte bat, ontziak berritzeko ez bada, errotak mantentzeko edo bide zaharrak gordetzeko. Herri baten historia gordetzeko lan egitea garrantzitsua da”. ■

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?

Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net



BASUSTA
erretégia · asador
José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
ERREKIBERRA, 11

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendato marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



Garoa

Carlos Cintero · Ainhoa Olazola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com



Gure Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



ilargi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriondo optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUTZ ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



ORRAZTEGI
ZUMAI

943-86 20 83

"Egon egin behar dugu emakumeok elkarrekin, eta hori izan dadila gure indargunea: taldea, gu"

MAIDER URBIETA ETA VANESSA ARBELAITZ EMAKUMEON* ETXKO KIDEAK

Goxoa eta patxadatsua da hizketan Maider Urbietta (Zumaia, 1992). Bizia eta berritsua, Vanessa Arbelaiz (Oiartzun, 1979). Emakumeon Etxeko kide dira biak, baita hura hartzen ari den formaren islak ere.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Batetik, emakumeentzako arreta zerbitzuko dinamizatzailerak da Urbietta, gizarte heziketan eta genero berdintasunean aditua. Bestetik, taldearen indarrean sinesten duen herritarra da Arbelaiz. Feminismoak argi bat erakutsi diona, babesa, indarra, "zulo *potente* batetik ateratzeko".

Emakumeon Etxeak bi aldeak eskaini nahi ditu: zerbitzuak, ikastaroak, harrera, aholkularitza; eta espazio aske bat egoteko, egiteko, hausnarketarako, eztabaidatzeko, elkar zaindu eta goxatzeko... Etxea bera, espazio fisiko moduan, falta da, baina Zumaiako emakumeak ez daude aterperik gabe.

Urtarrilarekin batera zabaldu duzue Harrera Zerbitzua Eusebio Gurrutxaga plazan.

Urbietta: Bai, hala da. Astearte, asteazken eta ostegun arratsaldeetan etor daitezke herriko emakumeak Hogarreko espazio honetara, 16:00etatik 20:00etara. Hau orain zabaldu dugu, baina irailetik ari naiz lanean emakumeen elkarterako. Batez ere barne mailako lanak egiten aritu naiz.

Arbelaiz: Elkartea sortu genuen, Emakumeon Etxearen asmo horri eusteko. Talde txiki bat gara, eta gehienok lanean gabiltza, edo denboraz mugatuta. Gainera, gauzak ondo egiteko

beharrezkoak dira profesionalak. Lilatoia antolatzeak bakarrik ere denbora behar da, gestioak egin behar dira. Aurreneko batzarrean aipatu genuen dinamizatzailerak bat behar genuela, eta geure artean baldin bazegoen, askoz hobe zela.

U: Neu taldean nenbilen hasieratik, eta, horrez gain, formazioa daukat berdintasunean eta gizarte arloan. Dena dela, hau ez da behin betiko erabakia. Etxea eraikitzen denean eta martxan hasten garenean, bazkideek erabakiko dute zein bide hartu.

Bazkideak aipatu dituzunez... Urtebetean 250 bazkide lortu ditu Emakumeon Etxeak. Balorazioa ona izango da, ezta?

U: Oso-oso pozik gaude, noski.

A: Bai, hori zen gure lehentasunetako bat.

Orain, etxea falta. Badu toki eta data zehatzik?

U: Tokia badaukagu. Udalak lehendik daukan lokal bat egokituko da, obrak egin, eta lortu duguna da Udalaren konpromisoa, 2020an obra horien tramiteak hasteko.

Emakumeon Etxea kogestionatua izango dela erabaki duzue; Gipuzkoan bakarra dago eredu horretakoa.

U: Bai, Donostiakoa izan da orain arte bakarra. Kogestioak esan nahi du kudeaketa udalaren eta elkarteraren artean egiten dela. Hitzarmen bat sinatzen dute udalak eta elkarreak, udalak



ekonomikoki laguntzen du, eta bertako ekintzen kudeaketa, koordinatuta izan arren, batez ere Emakumeen Etxeak berak egiten du.

Donostiakoan, esaterako, ikastaroak, hitzaldiak, etab. elkarteak antolatzen ditu, baina beti udalarekin koordinatuta eta adostuta.

A: Beste herrietan, aldiz, berdintasun mahaiak edo antzekoak dituzte, udaletik abiatuta. Horrek baditu bere arriskuak; hau da, ez dugu jokatu nahi udaletxean dagoen alderdiaren arabera. Guk autonomia maila bat nahi dugu. Egin genituen batzarretan erabaki zen etxea kogestionatua izango zela. Eta Udalbatzak onartu egin zuen hori. Hala, hitzarmen baten bitartez diru-laguntza jasotzen dugu.

Lokalak bete behar dituen gutxieneko ezaugarriak garbi dituzue jada?

U: Elkarteko bi bazkide arkitektoak dira, eta beraiekin hitz egin genuen beren iritzia eta proposamena jasotzeko. Izan ere, behar dugu diskrezioa mantentzen duen gela bat, baita espazio ireki bat ere ikastaroak antolatzeko, eta zine foruma egin ahal izateko pantaila duen toki bat ere bai. Bi bazkide horiek diseinu eder bat egin ziguten.

A: Izan ere, jakina da espazioak eragina duela harremanetan eta harreman horiek eraikitze prozesuan. Hori kontuan hartuta, kristoren proiektua egin dute bi arkitekto horiek, eta uste dugu Udalak kontuan hartuko duela.

Iaz egindako lana baloratu zenuten urtarriaren 18ko bazkideen batzarrean. Zein dira ondorio nagusiak?

U: Iaz, batez ere bi helburu genituen: bazkideak egitea eta Udalaren konpromisoa lortzea. Bietan aurrerapenak egon dira: 250 bazkide lortu ditugu, eta Udalaren konpromisoa ere lortu dugu.

Oraindik ez dugu ikusten etxe bat, baina pixka bat bai, urrunean bada ere. Ekintza dezente ere egin ditugu 2019an zehar. Esaterako, Lilatoirako autobusa antolatu, santelmoetan poteoa, eta topaketa Azpeitiko Etxearekin. Jendea ondo erantzuten ari da, eta alde horretatik ere, oso gustura gaude.

A: Geure artean sarea ehuntzen ari gara, eta badugu harremana Asanblada Feministarekin eta Malen Etxearekin. Elkar ezagutzeko beharra eta eztabaidatzeko espazio baten beharra ere aipatu izan dira, eta hor daude Jabetze Eskolak. Harrera Zerbitzua ere jarri dugu martxan: hemen dago beste espazio eta gune feminista bat.

Aholkularitza juridikoa eta psikologikoa eskaintzea zen beste helburuetako bat, eta

harreman hori ere ari gara lantzen. Norbaitek laguntza behar badu etor daiteke, dei dezake, eta guk harremanetan jarriko dugu behar duen zerbitzuarekin.

Esku artean duzuen informazioaren eta zeuen sentsazioen arabera, non ikusten duzue indargunea, eta non ahulezia, batetik zuen sarea osatzeko lan horretan, eta bestetik, Zumaiaiko gizarteari dagokionez?

U: Niri, herritar bezala, bazkide kanpainaren emaitzak sekulako ezusteko ona eman dit. Hain denbora gutxian horrenbeste jende animatu izanak erakusten du indarra eta mugimendua badaudela. Herri guztietan, baina Zumaian, Martxoaren 8an zer mugimendu egon zen ikustea eta zer erantzun eduki zuen... Ikaragarria izan zen.

Eta ahuleziak?

A: Gizarte honen parte gara, eta hemen ere bizi ditugu arazo larri asko. Matxismoa hemen existitzen da; gizarte patriarkala hemen ere nabaritzen da, nahiz eta ikaragarritzko indarguneak dauden eta ikaragarritzko aldaketak datozen. Ematen du ez dela indarkeria kasurik jasaten Zumaian, eta oraintxe pasa da Azaroaren 25a: ikaragarriak ziren Kontatu sare anonimoan irakur zitezkeen testigantzak. Mina eta zauria ikaragarria dago.

Jabetze Eskoletan bi ikastaro eskainiko dituzue ekainera bitartean. Bata autoestimaren eta autoezagutzaren ingurukoa da, eta bestea tratu onari eta erotismoari buruzkoa. Zergatik aukeratu dituzue gai horiek?

U: Saiatzen gara batzarretan edo bazkideekin ditugun harremanetan ikusten ditugun ahuleziei edo jendeak helarazten dizkigun beharrei erantzuteko formakuntzak antolatzen.

A: Kultura honek eta sistema honek behartzen gaitu elkarrengandik urruntzera, bakartzera, eta gainera, autolesionatzera. Elkartzen garenean, elkartze soilarekin, hitz egitearekin bakarrik, asko aurreratzen da. Eta beti bukatzen dugu ikusten zeinen garrantzitsua den norberak bere burua zaintzea.

U: Horrelako ikastaroetan konturatzen zara igual zuk zeure kontua bakarrik zela uste zenuen hori beste emakumeei ere gertatzen zaiela.

Norberak bere burua zaintzeaz hitz egiten duzuenean, denboraz ari zarete hitz egiten?

A: Batez ere ari gara norberak bere burua maitatzeaz, norberak bere burua baloratzeaz, kulpa kentzeaz...



Urbietan eta Arbelaitz, elkarrizketan.

"NIRI, HERRITAR BEZALA, BAZKIDE KANPAINAREN EMAITZAK SEKULAKO EZUSTEKO ONA EMAN DIT"

"BI HELBURU GENITUEN: BAZKIDEAK EGITEA ETA UDALAREN KONPROMISOA LORTZEA. BIETAN AURRERAPENAK EGON DIRA"

"GURE NAHIA DA HEMENDIK AURRERA BAZKIDE EGIN DIREN HORIEK GUZTIAK ETORTZEA HONA"

Arlo psikologikotik begiratuta, beraz.

U: Bai, bai. Baina, aldi berean, zeure burua zaintzeak denbora eskatzen du.

Sexualitatea ere landuko duzue.

A: Beste tabu bat dago hor. Ematen du sexualitateaz eta plazeraz ezin dela hitz egin, eta beti esaten dugu saiatuko garela hau izan dadin gune feminista bat, gune eraldatzaile bat. Hori da helburua. Ez edozer ikastaro egin, egiteagatik.

U: Hain tabua izan den gai bat denez, ez dugu geure gorputza ezagutu ere egiten. Eta horrelako ikastaro batekin, hain oinarritik hasi beharrak, erakusten digu benetan non gauden. Hortik normalizatzea, konpartitzera, bizitzako beste esparru bat dela barneratzera pasa behar dugu.

Aurtengo helburuei dagokienez, bazkide kanpainarekin jarraituko duzue, eta etxea fisikoki egiten hasiko zarete. Baduzue beste helburu zehatzik?

U: Talde motorra deitzen diogun taldetxo bat daukagu, eta aurreko urtean gure indarrak batez ere joan dira bazkidekanpainan. Baina gure nahia da hemendik aurrera bazkide egin diren horiek guztiak etortzea hona. Denon etxea izatea nahi dugu, eta norbaitek baldin badu ideia bat hausnarketa talde bat edo ez dakit zeren inguruko talde bat egiteko, aukera izan dezala horretarako.

A: Formakuntza beharrezkoa da, aholkularitza ere bai, eta hemen egongo da. Espazio bat, feminista, segurua, egongo da. Baina elkarrekin esperientziak bizitzeko guneak, proiektuak edo ekintzak ahalbideratu behar ditugu. Goazen goxatzera, ukitzera, eztabaidatzera. Helburuetako bat hori ere bazen: espazio bat edukitzea non eztabaidatu, elkar ezagutu, pentsatu, ikasi eta desikasi, eta horretan gabiltza. Eta egon, gure artean egon. Maila xume batean, baina egon. Eta hori izan dadila gure indargunea; taldea, gu. Ez ni, ni eta ni, baizik gu, eta horrek ekarriko du beste guztia. ■■■

Informazioa

- Arreta Zerbitzua: astearte, asteazken eta ostegun 16:00-20:00 artean
- Eusebio Gurrutxaga Plaza, 3, 2. solairua
- 943-11 05 34
- www.zumaiakoemakumeonetxea.eus
- zumaiakoemakumeonetxea@gmail.com

Alde zaharrear garai berrietaraino

Jon Sasiain, harakina

Zunbilo kaleko Sasiain harategia 17:00etan zabaltzen da, arratsaldetan, baina ordubete lehenago hartu gaitu bertan Jon Sasiainek. Harakina izatea ez baita soilik erakusmahaiaren atzetik bezeroei arreta eskaintzea. “Guri txahala osorik heltzen zaigu. Xerratu arte guztia pasa behar da gure eskuetatik: gantza kendu, zatitu, garbitu... denbora behar du horrek, eta jendea badaukazu, ez du denborarik ematen. Zabaldu aurretik edo itxi ondoren egin behar dira lan horiek”. Egunero hamabi edo hamalau ordu egiten du lan. Larunbatetan eguerdira arte izaten du irekita denda, eta igandeetan ixten du.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Zumarragatik heldu zen Jon Sasiainen aitona Migel Sasiain Zumaiaara, hogei urte zituela, harategi txiki batera. Zumaian ezagutu zuen amona Joxepa Urbietak. “Ezkondutxo ondoren zabaldu zuten harategia, duela 90 urte inguru”, aipatu du haien ilobak. Aitona egon zen lanean, aita gero. Gazteak zirela jaso zuten negozioa Jon Sasiainek, bere arrebak eta anaiak. Arrebak eta berak jarraitzen dute orain.


Haurra zeneko garaiaz gogoratu da Sasiain. “Harategi gaineko pisuan bizi ginen, eta dena kalean egiten genuen”, dio. Etxeko sarrera Zunbilo kaleko atzeko aldean zuten, eta ate hori beti zabalik zuela du gogoan. “Aldamenekoak eta bizilagunak etxeak ziren, edozer gauza behar genuela ere, elkarri laguntzen genion”. Enkarguak egiteko, esaterako, lasai eskatzen zieten elkarri haurrak zaintzeko.

Haur guztiak batera ibiltzen ziren jolasean Zumaia Alde Zaharreko kaleetan. “Gerora, adinarekin, norbere bidea hartzen du bakoitzak”. Hamalau urte egin arte edo, apenas irteten ziren auzotik. Goiko plaza deitzen zitzaion horretan edozein jokotan aritzen ziren, patxadaz, ez zelako autorik pasatzen. Beisbolean aritzen ziren, Goiko estankoaren aurrealdean bat makilarekin jarri, eta

plaza erditik pilota botatzen zion besteak. “Kristal batzuk apurtu ere egin izan ditugu”, aitortu du irribarrez. “Bazen denda koxkor bat, udaletxea berritu duten horretan zegoen etxe handi bat, Bonifazionekoa deitzen zitzaiona. Horko kristalak makina bat aldiz apurtu ditugu... gurasoek ere ordainduko zuten kristalen bat edo beste”.

Azoka itxita zegoenean, arratsaldeetan, haurren kiroldegia izaten zen. Haurrak kalean ibiltzen ziren, txikiak zirenetik: “Nire haurrengan ikusten dut aldaketa. Betiere babestu nahian edo ibiltzen gara, kezkaekin”, dio harakinak. 70eko hamarkadakoa da Sasiain, eta garai hartan, Alde Zaharrear haur ugari zela oroitzen du.

Gaztea zela ez zuen ikasketarik egin nahi izan harakinak: “Argi eta garbi nuen hori”. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra bukatu aurretik garbi zeukan lanean hasi nahi zuela. Txikitatik lagundu dute harategian Sasiain anai-arrebek: “Gurasoek ezin ziren iritsi, eta beti lagundu dugu. Nahi gabe ikasten duzu: aitztoa eskuan hartzen hasten zara, oporretan hiltokira joaten... ‘Honaino iristen zara? Ba honaino egin behar duzu’. Dinamika horretan sartu ginen. Ez nuen beste gauzarik buruan”. Mendiarekin lotutako zerbait egingo luke Sasiainek harakina ez balitz, “askatasunean”. “Animaliak asko gustatzen zaizkit, baina al baitari



irrimarra



izateko asko ikasi behar zela pentsatzen nuen... “Ez duzu ikasi nahi? Ba, badakizu zer dagoen”. Hori izaten zen gurasoen erantzuna. Pixkanaka ikasi, eta gurasoak ardurak bere esku uzten hasi ziren.

Garai batean abereak inguruko baserrietatik erosi eta sasiaindarrek beraiek hiltzen zituzten. Dionisio Sanchez bizilaguna beti izaten zen lan horietan laguntzeko prest: “Gure aitari arkumeak eta untxiak hiltzen laguntzen zion, garai hartan hilketa guztiak guk geuk egiten genituen-eta. Oilaskoak, oiloak... Gerora, Oikiara eramaten hasi ziren. Untxiak, txahalak eta arkumeak hiltokian hiltzen zituzten, Algorri Interpretazio Zentroa dagoen eraikin horretan”.

Orain ere mantentzen dute baserritarrekin zuzeneko harreman hori, baina salgaiak Sasiain harategiko erakusmahaira iritsi aurretik, hiltegitik pasatzen dira abere guztiak.

Salgai industrialen aldean, inguruko baserriek ekoizitakoa asko baloratzen du Sasiainek. “Hala ere, ulertzen dut gaur egun daukagun bizimoduarekin jendeak erosketak egiten denbora aurreztu nahi izatea”. Jateko orduan hobea den produktu baten edo denbora aurreztearen artean erabaki behar izaten dute, Sasiainen ustez, bezeroek. Prezioan alde handirik ez duela uste du: “Ez da garestiagoa, gehiago da denbora kontua”.

Badago Sasiain harategira produktu jakin baten bila joaten den jendea ere. Saltxitxak, odolkiak, txorizoa, txistorra, tripakiak... “Leku askotan utzi egin diote produktu horiek egiteari. Denborak agintzen du horretan ere, baina jendea horren bila propio etortzen dela ohartzen zara, eta nola

utzi hori egiteari?”. Gainera, buelta aprobetxatuta, beste zerbait ere eraman ohi dute bezeroek.

“Bezeroak etorri izan zaizkit, esanaz beren haurra beste haur baten etxera joan dela, Sasiain harategiko saltxitxak probatu dituela, eta saltxitxa horiek behar dituela. Egiten duzun lan hori egin eta gero jendeak eskertzen badu, badakizu zeure horretan segi behar duzula. Horrek bete egiten du”.

Prestatutako jakia ere erosten dute, kroketak, esaterako. “Zerbait saltzen da, baina badakite haragi bolak saltsan ez dituztela hemen topatuko. Haragi xehatua eramaten dute, eta haragi bolak beraiek egin. Herritarrek badakite harategian zer topatuko duten eta horren bila joaten dira, Sasiainen arabera.

Lantegia Sasiain harategia baino pixka bat gorago du, eta hor gauza zehatz batzuk egin ditzake: txorizoa, txistorra, odolkia, tripakiak eta mingain egosia. Beste ezer ezin du bertan egin. Hasieratik zuen garbi: “Aurrez prestatutako jakiak egin ahal izateko beste baldintza batzuk bete behar dira”. Gela ezberdinak behar izaten dira

Jon Sasiain

- **Adina:** 49 urte.
- **Ikasketak:** harakina.
- **Lanbidea:** oinarrizko Hezkuntza Orokorra.
- **Harakina ez banintz...** artzaina.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** kirola egitea.



produktu bakoitzeko, eta lantegi handiak behar dira horretarako.

Garai bateko harategi bakarra da Alde Zaharrean: "Txortena, San Juan iturriaren azpian zegoena, Olazabalen beste bi, Luxiarena, azokako postuak... Ezagutu dituzun betiko horiek

badoaz". Negozioaren etorkizunak ez dio kezkarik sortzen, inguruko harategiek ateak ixteak mesede egin baitio. "Beste harategietara joaten zen jendea Sasiainen dauden produktu horien antzekoen bila joaten zen. Haiek itxi dutenean, Sasiainen topatu dute besteetan bilatzen zuten hori". ■



BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Aita Mari jatetxea: Luis Mari Aizpurua



Juanjo Larrañaga: Ion Larrañaga



Aita Mari jatetxea: Naiara Anzizar

OTSAILAK 10

Ilegales, Sanagustin kulturgunean. Bi sarrera bikoitz.

OTSAILAK 17

Juanjo Larrañagaren eskaintza.

OTSAILAK 24

Aita Mari jatetxea: Bi lagunentzako jatordua.

MARTXOAK 2

Zelai talasoterapia: zirkuitua bi lagunentzat.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.



DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.

ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

AITA MARI JATETXEA: Bi lagunentzako afaria.

PHOTOMUSEUM ZARAUTZ: Bi sarrera.

EKAINBERRI: Bi sarrera.

SASTARRAIN: Bi sarrera.

JUANJO LARRAÑAGA: Produktuen zozketa.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko sarrerak.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA:

Kontzertuetarako sarrerak.

ZELAI TALASOTERAPIA: Hilero bi sarrera zirkuitorako.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-maillez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45




Hau Hotza!

Pelloziriren lagunak jantzi mordo bat jarriko du soinean, kalera ateratzeko. Zer da justuki, jantziko duena? Aukeratu dituen jantziak eta osagarriak biribildu itzazu, ondoko orrialdean ageri den gisan agertu dadin.



Otsailko Sudokua

Osa ezazu sudokua, OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak (O, T, S, A, I eta L) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



itzala

Zein da gure rock and roll zalearen itzal zuzena?





Hamaika

...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amatxiren kroketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu bi irudi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.




Badakizu
zer dioen esaera zaharrak?

Otsaila bero, Negua gero



Graffiti

Imajina
ezazu
ondoko
hau zure
eskolako
pareta
dela. Egin
ezazu
graffiti
lotsagabe
samar
bat. Edo
nahiago
baduzu,
aldarrikatu
ezazu
zerbait,
idatziz.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10

tel. 943-05 05 77

KABI Palatia Etxezarreta, 15
943-11 74 27
TABERNA

Kaithermik S.L.

Arrotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beotide, 2 • Tel. 943 862 209

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) 20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indurtegia, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Korta Indurtegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beotide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arrapa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

Insomnioa II

INSOMNIOA HOBETZEKO ARGIBIDEAK



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Loaldiaren higieena

Loa eragiten duten lo ohitura egokiagoak lortzeko, pertsonak ikasi edo berrikasi beharreko prozedura da.

Behar bezalako loaldiaren higienarako argibideak

- Tea, kafea edota kafeina eta edari energetikoak ekidin oheratu baino 6 ordu lehenagotik, gutxienez.
- Erretzea zein gehiegizko alkohol kontsumoa ekidin, gutxienez, oheratu baino 2-3 ordu lehenago.
- Ariketa fisikoak lo hartzen laguntzen du. Hala ere, ez egin gehiegizko ariketa fisikorik oheratu baino lehenagoko orduetan; jarduera murriztea programatzea gomendagarria da.
- Oheratu aurretik, janari astunak eta likido gehiegi edatea ekidin.
- Ez zaitez joan ohera gose edota egarri.
- Gauez esnatzen bazara, gomendagarria da ez jatea, esnatzea baldintzatu baitezake gosez gauden bakoitzean.
- Loaldirako giro isila, iluna, segurua, atsegina eta tenperatua egokia duena (23° C-tik behera) dugula kontuan izan.
- Koltxoi gogorregia erabiltzea ekidin.

- Lo kuluxkak murriztu/ekidin.
- Iratzargailua logelatik kanpo utzi, orduaren zain egotea ekiditeko eta antsietatea murrizteko.

Estimuluen kontrola

Neurri haelburua da logelako estimuluen eta lo hartzearen artean lotura bat ezartzea.

Estimuluak kontrolatzeko argibideak

- Ohera logura dugunean baino ez joan.
- Oheratzeko garaia dela ohartaraziko gaituzten ohitura batzuk ezarri eta jarraitu (edaldontzi bat esne edatea, irakurtzea, gasa itzaltzea, hortzak garbitzea, etab.).
- Ohean sartu eta 15-20 minutura ez baduzu lo hartu, ohetik eta logelatik irten (nahi izanez gero, jarduera lasairen bat egin), eta logura izatean oheratu berriz. Behar adina errepika ezazu.
- Egutero ordu berean jaiki eta oheratu, loaldiaren ordutegiari eusteko.
- Ohea lotarako eta sexu-harremanetarako baino ez erabili. Ez egin beste jarduerarik, hala nola, telebista ikusi, telefonoz hitz egin, irratia entzun, jan, etab.

Arnasketa Abdominal Diafragmatikoa

Loa desaktibazio fisikora eramango gaituen arnasketa

sakon, erregular eta abdominalarekin lotuta dago.

Gorputza eta adimena lasaitzeko modu aparta da, batez ere.

Praktika honen bidez zainen zirkulazioa bizkortzen da, organo abdominaletan etengabeko masajea egin eta arnasketari zabaltasuna, lasaitasuna eta erritmoa ematen dizkio.

Gomendagarria da arnasketa abdominala gure gorputza ohitu arte praktikatzeko.

Arnasketa ikasteko jarraibideak

- Jar ezazu esku bat bularrean eta beste urdailean, airea diafragmara eta biriken beheko aldera daramazula ziurtatzeko, bularra mugitu gabe.
- Har ezazu arnasa poliki-poliki, urdaila eta sabela zertxobait puztu, bularra mugitu gabe.
- Arnasa hartzerako orduan, zenbatu batetik bost edo hiru bitarte.
- Eutsi arnasari une batez posizio horretan zaudela eta batetik bost edo hiru bitarte zenbatu.
- Bota arnasa, poliki-poliki, sabela eta urdaila sartu, bularra mugitu gabe, batetik bostera bitarte zenbatzen duzun bitartean.
- Saia zaitez lasai egoten, eta are gehiago lasaitzen airea botatzen duzunean. ■■■

PUBLIZITATEA



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com



Talaja
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
taberna

Enbena kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73



ITAKUN TABERNA

Izustari, 3
tel. 943-86 52 89



TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitak, oilaskoak...
Garagardotek aukeran

Ondartza plaza, 4 behea -Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com



UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xant
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantaltzariak.com



yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla
taberna

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urra Plaza 3 • 943-86 23 81 ZUMAIA



ZUMAIA
AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943.86 10 18 / zumaiaautoeskola@hotmail.com



Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai suzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61



EMAKUMEEN
UNEA
IRITSI
DA

12€
8€

TXAPELDUNAK!
ERREGINAREN KOPA 2019

HITZA HITZA HITZA HITZA HITZA

Salmenta puntuak:
ZUMAIA Garoa taberna. Aizpurua liburudenda. Mandala.

* HITZAko HARPIDEEK eta BALEIKEko BAZKIDEEK 8 euroan (HEDABIDEEN EGOITZETAN erosi behariko dituzte)

UKT HUBOLA KOSTAKO HITZA

Musutxo bat emango?



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Ama eta 5 urteko alaba kaletik doaz, eta lagun batekin topo egin dute:

-Kaixo! Zer neskabila polita!
Nola duzu izena? (Haurra amaren atzean ezkutatu da)

-Esan, ba, zure izena! Ez izan zakarra! Maria du izena
-esan du amak, azkenean.

-Kaixo, Maria. Musu bat emango didazu? (Maria berriro amaren atzean ezkutatu da)

-Aizu, Maria, ez izan horrelakoa! Emaiozu musu bat! Nire laguna da eta!
(Azkenean, kasu gehienetan, haurrak musu ematera behartuta egoten dira)

Hurrei etengabe euren gorputzaren jabetza kentzen diegu, pentsatuz guk heldu bezala eskubidea dugula eurek onartzen ez dituzten ekintzak eginarazteko. Eta horrekin arazo bat sortzen ari gara, hurrek oso argi izan behar dutelako euren gorputzetan eurek bakarrik agintzen dutela.

Musuen kasua ikusten da gehien. Haurrak musuak ematera behartzen ditugu etengabe. Senitartekoei, ezagunei, ezezagunei, beste haur batzuei... Eurentzat beharrezkoa ez den eta,

gainera, nahi ez duten zerbait egitera behartzen ditugu.

Kasu honetan musuez ari gara, baina berdina gertatzen da laztanekin, masailak eskuekin estutzearekin...

Haurraren gorputza helduaren gorputza bezain pribatua da.

Inoiz ez da behartu behar haur bat musu ematera, inori ere ez. Berdin du laguna, osaba, izeba, lehengusua edo ezezaguna den.

Zer mezu ematen diogu haurrari musu ematera behartzen dugunean?

-Zuk ez duzu zure gorputzean agintzen.

-Besteak ongi sentiarazi behar dituzu, nahiz eta horrek zu gaizki sentiarazi.

-Besteen atsegina da garrantzitsua, zure sentimenduak ez dira kontuan hartzen.

-Besteek behar edo nahi dutena da garrantzitsua.

-Zure iritziak ez du baliorik.

-Helduek agintzen dute zure gorputzean.

**INOIZ EZ DA BEHARTU
BEHAR HAUR BAT
MUSU EMATERA, INORI
ERE EZ. BERDIN DU
BESTEA NOR DEN**

Oso garrantzitsua da hurrek erabakitzea euren

gorputzarekin egin nahi dutena eta egin nahi ez dutena.

Arriskutsua izan daiteke haur bat behartzea nahi ez duen pertsona bati musu ematera.

Argi eduki behar dute euren erabakia dela eta inork ezin dituela behartu gorputzarekin nahi ez duten edozer egitera. Eta norbaitek behartzen dituen egoera batean egonez gero, jakin behar dute beti izango dutela gurasoen laguntza, eta jakin behar dute gurasoek beti euren iritzia kontuan hartuko dutela.

Haurrak prest daudenean, euren onena ematen dute. Pertsonak prest gaudenean gure onena ematen dugu. Guk erabakitzen dugunean.

Guraso asko arduratu egiten dira, seme-alabek agurtu nahi ez dutenean edota musu eman nahi ez dutenean, eta horrek ez gaitu kezkatu behar. Seinale ona da haurrak erabakitzeke ahalmena izatea, batez ere gai hauetan.

Beraz, horrelako egoeretan, beti haurren ondoan egon eta haurrari lagundu.

-Orain ez duzu gogorik, eta ulertzen dut. Ez da ezer gertatzen.

Haurrek ondoan behar gaituzte. ■■■



JAVIER CARBALLO

Marea Gora

Ez dago zalantzarik. Klima berotzen ari da, Artikoa eta Antartika dagoen izotza urtzen ari da eta itsas maila gora dator. Ez da ondorio bakarra izango, ezta gutxiago ere, baina gure kostaldean nabarmenena izango da. Baina ba al dakigu zehazki zenbat igoko den? Eta zer ondorio izan ditzakeen igoera horrek gure kostaldean? Gure hondartzetan? Gure azpiegiturretan?

Testua eta argazkiak: **Asier Hilario.**

Erantzuna ez da erraza, baina bai, badaude ondo landutako modeloak. IPCCk (International Panel for Climate Change) argitaratu duen azken txostena kontuan izanik BC3ko (Basque Center for Climate Change) ikertzaileek gure kostalderako azterketa sakona egin dute egoera desberdinak kontuan izanik. Balizko egoera horiek RCP izena dute (Representative Concentration Pathway) eta hurrengo hamarkadetan egongo diren negutegi gas isurketen menpe daude. Nolakoa izango da klima 2100. urtean? Gure esku dago. Isurketak asko murriztu eta Pariseko protokoloa betetzen badugu (RCP 2.6), klima 1,5 Co berotu daiteke, baina gure hazkunde

	Batez-besteko igoera		Muturreko gertakariak	
Urteak	RCP 2.6	RCP 8.5	RCP 2.6	RCP 8.5
2030	12 cm	15 cm	22cm	27cm
2050	21 cm	29 cm	40 cm	52 cm
2100	42 cm	75 cm	91 cm	140 cm

eta kontsumo modeloa aldatzen ez badugu eta isurketen hazkundera bussines as usual mantentzen badugu (RCP 8.5), klima 5 Co berotu daiteke. Hauek dira bi egoera horietan gure kostalderako aurreikusten diren igoerak:

Antartika, Galea, Sakoneta eta Urola. Klima eta itsas mailaren gorabeherak azken milaka urteetan.


Klima aldaketa eta itsas mailaren hazkundera ondo ulertzeko, ezinbestekoa da denboran atzera begiratzea. Nolakoa izan da klima iraganean? Eta itsas mailaren gorabeherak? Erantzunak Antartikan eta gure kostaldean bilatuko ditugu.


Azken milaka urteetako klima ulertzeko Antartikara joan behar dugu. 1999. urtean Vostok izeneko behatoki zientifiko batean 3.590 m-ko sakonera zuen zundaketa bat egin zuten. Izotz testigu horren azterketak argi erakutsi zuen azken 400.000 urteetan klimak eta CO₂-ak gorabehera dezente izan dituztela eta horiek ziklikoak izan direla. Oro har, esan daiteke glaziazioak eta interglaziazioak 100.000 eta 20.000 urteko zikloetan errepikatzen direla. Azken glaziazioa duela 20.000 urte inguru izan zen, eta azken interglaziazioa duela 120.000 urte. Garai hotzenetan atmosferako CO₂ kontzentrazioa 180 ppm (parts per million) izan zen eta garai beroenetan 280 ppm inguru. Horrela mugitu da modu naturalean azken milioi urteetan. Gaur egun atmosferako CO₂

kontzentrazioa 413 ppm da eta hazkunde hori azken 100 urteetan eman da bereziki. Hori da gakoa. Horregatik pentsatzen dugu egungo klima aldaketa ezohiko zerbait dela, klimaren eboluzio naturalek nabarmen ateratzen delako.

Glaziazio eta interglaziazio horiek itsasoaren mailan izan duten eragina aztertzeke antzinako marearteko zabalgunek aurkitu behar ditugu gure kostaldean. Duela 120.000 urte, klima beroa izan

Euskal kostalderako itsas mailaren igoerak. IPCC/ BC3





Punta Galeako zabalgunea duela 120.000 urte sortu zen itsas maila egun baino 20 metro altuago zegoenean.

Urola estuarioan egindako zundaketek argi erakusten dute azken hamarkadetan itsas mailaren igoera azkartu egin dela.

- Duela 7.000–3.000 urte bitartean itsas maila 0,3-0,7 mm/urtean igo zen. Orduan garatu ziren estuarioetako gune buztintsuak (Bedua).
- Duela 3.000 eta 200 urte bitartean itsas maila egonkortu egin zen.
- XIX. eta XX. mendeetan 2mm/urtean igotzen hasi zen.
- 1990-2020. urteetan 3-4 mm/urtean igotzen ari da.

Itsas mailaren igoeraren ondorioak

Gure kostaldean marea jaitsi eta igotzen denean itsasoak 4 metroko gorabehera egiten du. Itsas igoera batek labarretako higadura indartuko luke, baina salbuespenak salbuespen, hori ez da arazo handia izango.

zen azken aldian, itsas maila gaur baino 20 metro altuago egon zen. Punta Galeako zabalgunea da itsas maila altu horren ondorio nabarmenena.

Duela 20.000 urte, ordea, klima hotzagoa izan zen eta itsas maila 100 m beherago egon zen. Ekain margotu zutenek kostaldea gaur egun baino 8 bat kilometro urrutiago zeukaten. Gaur egungo marearteko zabalgunea itsas barrura 8 kilometro jarraitzen badugu, 100 m sakonera iritsiko gara eta perfilean itsasoa beherago egon zen momentu desberdineko marearteko zabalguneez utzitako 6 eskaloi ikusiko ditugu. Modu naturalean, azken 20.000 urteetan, itsas maila 100 m inguru igo da.

Lupa gertuago jarri nahi badugu, gure estuarioetan begiratu behar dugu. Horietan pilatzen diren harribiribilak, hareak eta buztinak itsasoa eta ibaiaren arteko orekaren ondorioak dira. Deba, Urola, Urdaibai, Txingudi eta beste zenbait estuarioetan egindako ikerketek argi erakusten dute azken urteetan itsas mailaren igoera jada hasi dela azkartzen.

- Duela 10.000–7.000 urte bitartean itsas maila 9-12 mm/urtean igo zen. Orduan sartu zen hondarra bailaretan gora eta garatu ziren gure estuarioak (Santiago).



Hondartzek, aldiz, gehiago sufrituko dute. Itsasbeheran Itzurunek 200 bat metro zabal ditu, baina marea altuenetan, berriz, Itzurun ia desagertu egiten da. Atera kontuak: 2100. urtean itsas maila metro bat igoko balitz...Labarretan harrapatuta dauden hondartzak ez dute irtenbiderik, eta Kontxa ere ez da salbuespena.

Hondartzek badute itsas mailaren igoerei aurre egiteko mekanismo propioa. Dunak dira. Hori da gure hondartzen despentsa naturala. Itsasoak dunak higatuko ditu eta hondartza poliki-poliki atzerantz mugituko da. Arazoa da gaur egun duna sistema gehienak guztiz antropizatuak daudela (Gros, Ondarreta, Orio, Zarautz eta Deba). Zarautz da adibide argiena. Itsasoak eta olatuek gora egiten dutenean, malekoian dauden taberna eta lokal guztiak dar-dar egiten dute. Inurritzako biotopoen, aldiz, itsas ekaitza bakoitzean dunak higatu egiten dira eta modu naturalean osatzen dira itsasoarekiko oreka mantenduz.

Arazo nagusia itsasotik urrunago dauden tokietan egon daiteke, estuarioetan, alegia. Hor daude aldapa eta altuera baxua duten eta urpean gera daitezkeen zabalgunek gehienak, eta horietako asko eraikin eta azpiegituraz beteak daude. Bilbo da kasu guztietan argiena, baina ez bakarria.

Ez da profezia bat. Urteetan zehar zientzialariek landu dituzten modeloak dira. Gero eta zehatzagoak. Horri esker, gaur bertan has gaitezke egokitzeko eta eragina gutxiagotzeko neurriak martxan jartzen. Gure esku dago. Klima aldaketa egungo modelo aldatzeko aukera paregabea da. ■■■

Itzurun gaur egun. Itsas maila metro bat igotzen bada marea baxuan hondartza gutxiago izango genuke eta marea erditik aurrera Itzurun estalita geldituko litzateke.

**ITSAS MAILAREN
HAZKUNDEA ONDO
ULERTZEKO,
EZINBESTEKOA DA
DENBORAN ATZERA
BEGIRATZEA**

**HONDARTZEK BADUTE
ITSAS MAILAREN
IGOEREI AURRE
EGITEKO MEKANISMO
PROPIOA. DUNAK DIRA**

Arantxa Aizpurua Zinkunegi, urrutitik ere beti Zumaiari begira



TESTUA: IMANOL AZKUE @ImanolAzkue

ARGAZKIAK: ARANTXA AIZPURUAK UTZIAK

Felixek idatzi zidan, emakume batek deitu zuela Baleikera. “Orduan bai” honen irakurlea zela eta bazeukala istorio polit bat atal honetarako modukoa, Baso-mutilak liburukoa, kolera gaitzarekin gaixotu, ustez hil eta “berpiztu” zen Manuel Arriorena. “Irakurle bat, behintzat, badaukat...”, pentsatu nuen; ezagututakoan, ordea, segituan konturatu nintzen Arrioren istorioa baino interesgarriagoa zela emakume haren bizitza, eta desio bat ere izan nuen: nahiko nituzkeela 87 urterekin horrelako indarra, bizitasuna eta memoria ona.

Zumaiar askok ez dute ezagutuko, Zumaiatik kanpo bizi izan delako txikitatik, baina urrutitik ere beti Zumaiari begira egon da Arantxa, eta distantziak ez dizkio lausotu ez Zumaiako kontuak, ezta Zumaiako hizkera ere. Haurtzaroa omen da memoriaren “kutxa beltza”, lehen oroimena eta galtzen den

azkena, eta Arantxak bizi-bizi dauzka txikitako kontuak.

Zumarragan jaio zen, 1933an. Aita Orbegozorenean zebilen lanean, Zarautzen, baina Zumarragan hasi behar zuela eta, familia osoa hara joan zen Zumaiatik. Baina bi urteren ondoren, bueltatu egin ziren; jaiolekua zela eta, anaiak adarra jotzen zioten: esaten zioten Santa Luzia egunean ijitoek eramandakoa zela Zumarragara, eta amak, orduan, esaten zien ezetz, Arantzazura joan zirenean amabirjinak emandako aingeru bat zela... “Bilbotarrek esaten dute edozein tokitan jaiotzen direla, ezta? Ba, nik berdin: ni zumaiarra naiz, Zumarragan jaio arren”, dio barrez.

**DENDA BAT JARRI ZUEN
ARANTXAK, ETA
GAUESKOLETAN ERE
IBILI ZEN EUSKARA
ERAKUSTEN LANGILEEI**

Zumarragatik etorrira, aizpurua-zinkunegitarak (gurasoak eta zortzi anai-arreba), Telesforoneko etxean jarri ziren bizitzen, Goiko plazan, eta gogoan dauka nola txikitan jolasean ibiltzen ziren kaldestarrekin, Cuendenekoekin... Hiru urte besterik ez zeuzkala, 1936ko Gerra lehertu eta bizimodua pitzatu zitzaizen: amaren aldetik karlista porrokatuak ziren; aita, berriz, nazionalista amorratua... Tropak herrian sartu baino lehen, aitak alde egin zuen, eta gero anaia zaharrenak ere bai, itsasoz, 15 urte besterik ez bazeuzkan ere. 1937ko otsailean herritik kanporatuak izateko arriskuan egon ziren, baina azkenean geratzea lortu zuten, etxetik edo “herrira” ez irteteko baldintzarekin. Beste “galtzaile” asko bezala, kutsatuta baleude bezala tratatzen zituzten. Herriko eskolan ikasi zuen, Alondegian, baina ez dauka oroitzapen onik: “Ikasi? Ikasi nuen alde egiten eskolatik! Nahiago amaren errietak entzun eskolan egon baino!”;



Aizpurua-zinkunegitarrak, 1939an. Ezkerretik eskuinera: aita Manuel, Inaxio, Arantxa, Juanito, Manueltxo eta ama Isidora.

Maritxu ahizpa, berriz, bidali egin zuten kolegiotik, aita kanpoan zegoelako. Oso garai gogorak izan ziren, sufrimendu handikoak; anaia zaharrena Gerran galdu zen.

Zinkunegitarrek (*Xakunekoek*) harreman berezia zeukaten Itzurun hondartzarekin, hango bainurako kasetak-eta familiarenak zirelako. “Pentsa: uste genuen plaia gurea zela!”, dio algaraz. Ederki ikasi zuen Arantxak itsasoak behera eta batez ere gora egiten duela: behin, oinetakoak erantzita,

entretentuta ibili zen Santelmoaldeko zuloetan eta putzuetan, eta konturatu zenerako, gero oinetakoak falta! Etxera oinutsik joan behar...

Gerran alde egin zuenetik aita Bilbon bizi zenez, 6 urterekin hara joan ziren denak bizitzera, eta tarteka etortzen ziren Zumaiara, batez ere udan. Bilbon hogei urte pasata, aitarekin lanarekin atzetik, Pasaia aldera joan ziren bizitzera gurasoak eta Arantxa, Herrerara; ordurako, beste anaiak euren bizimodua egiten hasiak ziren, eta Herreran bizi

izan ziren hurrengo 30 urteetan, baina betiere Zumaiarekin lotura mantenduta. Denda bat jarri zuen Arantxak, eta gaueskoletan ere ibili zen euskara erakusten langileei, emakumeei..., Oñatibiaren metodoarekin, 1978ra arte. Nola gerturatu zen irakasle lanetara? Donostian frantsesa ikasten hasi zenean, jakin zuen Maria Dolores Agirre euskara irakasten ari zela eta harengana joan zen; gero jakin zuen euskara-klaseak ematen zituela Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* Diputazioan, eta han joan ziren Malen Rica



Arantxa gaztetan eta are gazteagoa zenean.

laguna eta biak, 1959an, ikastera. “Han ezagutu nuen Luis [Koldo] Mitxelena. Alboko gelan egoten zen, eta eztabaida sortzen zenean, deitu egiten zion Txillardegik, argitzeko”.



1933koen kinto bazkarian, 1994an. Arantxa: bigarren lerroan, ezkerretik hasita hirugarrena.

Oso gogoan dauzka klase haietara joaten ziren batzuk: Nemesio Etxaniz, Laborde, Zumalabe, Iñaki Irigarai, Iñaki Beobide zumaiarra... Orduko apunteak ere gordeta dauzka.

Ikaskide haietako bat, Nemesio Etxaniz apaiza, ikastoletara joaten zen, ipuinak kontatzera, abestera..., eta irratietarako (Arrate, Segura...) euskarazko grabazioak behar zituen ez eta Arantxak ahots ona zeukanez, grabazioetan hasi zen Arantxa lanean. Euskara barru-barruan bizi izan du beti, eta aitaren txikitako pasadizo batekin akordatu da: “Kalean euskaraz hitz egitea debekatuta zegoenean, anai-arrebok etxean erdaraz egiten hasi ginen, eta aitak gogor egin zigun: ‘Kalean

Francok aginduko du, baina hemen nik; kalean txinoa ere bai, nahi baduzue, baina hemen euskaraz’”. Bilbon “los aldeanos” deitzen omen zieten, zergatik eta euskaraz hitz egiten zutelako.

Donostiatik, Bilbora joan zen bizitzera, lagun batekin, baina Bilboko bizimodua ez zitzaion gustatzen. Beste zerbait nahi zuen, eta inguruetan baserri baten bila aritu ziren; azkenean, Aiaraldean (Arabian) sortu zitzaizen aukera, Zuatzan: “Baserria berritu genuen, bizitzen jarri ere bai, baina harreman hark ez zuen ondo irten, eta saldu egin behar izan genuen”, dio. Saldu nahian zebilenean, Menagarai herriko Mendieta auzoko apaizetxean



Menagarain (Araba), etxean, 2017an. XABIER AZKUE

bizitzeko aukera sortu zitzaion, eta han bizi da duela 16 urtetik. Adinean aurrera ere, ikasten jarraitu zuen unibertsitatean ("Esperientzia Gelak" deiturikoan), baita euskara

erakusten ere inguruetan: Menagarain, Arespalditzan...

Zumaiari begiratuta, ikusten du izugarri aldatu dela. "Berriegia... Lehengo kutsu

hura..., ez dauka", dio, herrimin puntu batekin. "Akordatzeko naiz Bonbillo-eta..., ezagutu ditut erriberak, orain etxez josita daudenak, baratzeak... Moilaberriko parkea oso polita dago... Moila ere nahikoa ondo... Eta gutxi gustatzen zait San Telmoko... [isilaldia] Gehiegia... Galdu egin du".

Zumaiako berri badauka *Baleike* aldizkariaren eta baleike.eus-en bidez, eta nongoa den galdetutakoan, beti erantzuten du zumaiarra dela. "Nongoa esango dut, ba? Zer daukat nik Zumarragan?", dio. Badaki azken tokia Zumaiaren daukala gordeta, Andreemarialdean, aitarien ondoan. Baina ikusiko ahal dugu Zumaiako kalean, lehenago, orain bezain hiltun eta sasoiko! ■■■


Baso-mutillak

Baleikera deitu zuenean, Arantxak pasadizo hau azaldu nahi zidan, atal honetan jasotzeko interesgarria izan zitekeelakoan:

"Nik ezagutu nuan gizon bat Zumaiako errian; Manuel Arrio esaten zioten izena. Ura, kolera-denbora artan, eraman omen zuten kanposantura, ilda zegoala pentsatuta, txikia zala.

Baiña ez egon ilda. Enterradorea konturatu eta eraman etxera, ta bizirik atera. Baiña kalteak larga zizkion gaitz arek; burua balantxaka ibiltzen zuan. Gizon ona zan da Jaunak zeruan eduki dezala"

ARRIZABALO, Jose Manuel eta ZAVALA, Antonio: *BASO-MUTILLAK*, Auspoa, Tolosa, 1979, 23. orrialdea.



KULTURA

“Euskara, bestela ez gara”

9. urtez

TESTUA: ZUMAIAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

Zumaiaiko Udaleko Euskara Zerbitzuak hitzaldi zikloa antolatu du aurten ere. 2012an hasi zen *Euskara, bestela ez gara zikloa* antolatzen; beraz, aurten bederatzigarren aldia izango da. Urtero bezala, ahalegina egin da herrira begira jartzeko eta lau hitzaldietatik bik Zumaia izango dute ardatz. Hitzaldi guztiak Alondegiko Oxford aretoan izango dira, 18:30ean.

Zikloko lehenengoa Maddi Sarasua bertsolari gazteak emango du, otsailaren 19an. Bere saioari *Euskara klase perspektibatik* ipini dio izenburua. Izan ere, Sooziolinguistika Klusterrak egindako ikerketen emaitzetan, errentaren eta hizkuntzaren arteko lotura agertzen da. Datuei begira, euskararekin lotuen dagoen giza taldea klase ertaina dela ondoriozta liteke. Bestalde, erdara hutsezko hezkuntza eredu publikoetako haurren profilek edota, orokorrean, euskararen erabilera datuek adierazten digute euskarak kapa proletarizatuenengana iristeko duen zailtasuna. Kezka hauek euskara eta euskalgintza klase perspektibatik hausnartzeko saiakera izango da euskararen biziberritzeari dagozkion galdera eta pista berri batzuk ireki asmoz.

Bigarrena otsailaren 26an etorriko da, Joseba Zulaika filosofo eta antropologoaren eskutik, bere ibilbide profesionala Nevadan, Renoko unibertsitatean egin du eta nazioarteko ikuspegi hori ekarriko du gurera. *Ingelesez? Gaztelaraz? Euskaraz? Ikasle edo idazle baten aukerak eta dilemak* hitzaldia emango du. Informazioan, hizkuntzan, kulturen globalizazioa nagusitu den honetan, ikasle edo idazle batek lehen erabaki oinarritzak egin behar du: zein hizkuntza aukeratu bere karrera egiterakoan edo bere liburua idazterakoan. Hizkuntzaren funtzio komunikatibo, profesional eta emozionalen inguruan eztabaidatu nahi du, antropologia linguistikotik hartutako zenbait nozio erabilia.

Bigarren zatian herrira begira jarriko da zikloa. Martxoaren 4an, Imanol Azkuek “Euskara Zumaian 1766-1966: historia pixka bat, istorio batzuk” hitzaldia eskainiko digu. Udalaren beka bati esker, berrehun urteko tartean

ZIKLOA OSATUKO DUTEN LAU HITZALDIETATIK BIK ZUMAI AIZANGO DUTE ARDATZ

euskarak Zumaian izan dituen gorabeherak aztertzen aritu da zumaiaarra. Euskaraz hitz egiten al zuten gure arbasoek? Ba ote zekiten gaztelaniaz? Zerk indartu zuen euskara? Eta zerk ahuldu? Galdera horiei eta gehiagori erantzuten ahalegindu da, iluntasunean adibide argigarri batzuk emanda. Iragana ezagututa, hobeto ekin ahal izango baitaie etorkizuneko erronkei.

Azkenik, itxiera biribila emateko, Zumaian egindako ikerketa baten berri emango da martxoaren 11ko saioan. Jone Miren Hernandez eta Josu Ozaita gizarte antropologo eta ikertzaileek Soziolinguistika Klusterraren eskutik egindako ikerlanaren emaitzak azalduko dituzte: *Zumaiaiko gazteak euskararen eszenatokian. Irudiak, diskurtsoak eta bizipenak*. Gazte kultura zabal eta konplexu batean txertatzen dira Zumaiaiko gazteak, globalak diren zenbait joera partekatuz, baina, aldi berean, tokian tokiko egunerokotasuna kudeatzeko estrategia propioak asmatuz eta erabiliz. Errealitate konplexu honetan txertatzen da hizkuntza ere, euskara. Zikloko azken hitzaldi honetan Zumaiaiko gazteak euskararekin duten harremanen inguruko zenbait gako azalduko dira, herritar gisa eta gazte gisa bizi duten errealitatea irudikatzen asmoz. ■

AGENDA

ERAKUSKETAK

URTARRILAK 24-OTSAILAK 9

Hitza eta irudia. Bata JM Sesma eta Leire Alvarez.

OTSAILAK 13-MARTXOAK 1

Dena gezurra da. Olatz Landa.

MARTXOAK 6-22

Emakumea palestinar kooperatibetan. Imanol Manterola.

MARTXOAK 24-APIRILAK 5

Darahli: oporrak bakean.

DEIALDIAK

OTSAILAK 21-24

Inauteriak.

OTSAILAK 9-MARTXOAK 11

Asteazkenetan, *Euskara, bestela ez gara* zikloa.

MARTXOAK 13-15

Zumaiako dendarien Neguko Merke azoka.

OTSAILA

1 LARUNBATA

Zuhaitz landaketa.

2 IGANDEA

Txakur lasterketa.
11:00etan.

4 ASTEARTEA

Kalejira: Beheko plaza abesbatzaren Santa Ageda.
18:00etan.

9 IGANDEA

Haurrentzat antzerkia: *Kaskarot*, ATX Teatroa.
Aita Marin, 12:00etan.

12 ASTEAZKENA

Meditazio saioa: Guneren eskutik.
Forondan, 19:30ean.

13 OSTEGUNA

Helduentzako ipuin musikatuak: *Basatiaren mintzoa*, Maite Arrese eta Mau Ziemkiewicz.
Oxford aretoan, 19:00etan.

Zine forum: *Gisaenchung (Parásitos, JBA)*. Zuz.: Bong Joon Ho.
Aita Marin, 22:00etan.

14 OSTIRALA

Antzerkia: *Zaldi urdina*, Axut!, Artedrama eta Dejabu.
Aita Marin, 22:00etan.

15 LARUNBATA

Zumaiako XXXVI: lasterketa herrikoia.
16:00etan.

Zumaiako Kaldereroak.
Komentutik abiatuta 19:30ean.

19 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Euskara klase perspektibatik*, Maddi Sarasua.
Oxford aretoan, 18:30ean.

21 OSTIRALA

Musika eskolaren inauteri kalejira: *Mexiko*.
Ubillosetik abiatuta, 18:30ean.

22 LARUNBATA

Inauteri jaia: musika, mozerro lehiaketa, photocalla eta dantza.

24 ASTELEHENA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots: *Bizi dantza*.
Zumaietan, 15:00etan eta 17:30ean.

Inauteri festa: LH4-6 bitarteko haurrentzat (irekia).
Ludotekan, 18:00etan.

26 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Ingelese? gaztelaraz? euskaraz? ikasle edo idazle baten aukerak eta dilemak*, Joseba Zulaika.
Oxford aretoan, 18:30ean.

Gune elkartearen solasaldia: *Gazteak eta barnetasuna, espiritualtasuna, bizi-jakituria*. Esther Gabiola.
Forondan, 19:30ean.

27 OSTEGUNA

Zine forum: *O que arde (JBA)*. Zuz.: Oliver Laxe.
Aita Marin, 22:00etan.

29 LARUNBATA

Txirrindularitza: elite eta sub23 lasterketa.
10:00etan.

Nekeak ahazteko liburua



AROTZAREN ESKUAK

Egilea: Alberto Ladron Arana
Argitaratzailea: ELKAR
Argitaratze urtea: 2006
Orrialdeak: 249
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Duela urte batzuk Urrestillako idazle batekin literaturaz mintzatzeko parada izan nuen. Solasaldian zehar hamaika gai ukitu genituen, eta, nola ez, berehala sortu zen eztabaida. Zerk bultzatzen du idazle bat zerbait idaztera? Zer helbururekin?

Galdera horien erantzunak denetarikoa izan daitezke, baina idazle haren esanek bereziki harritu ninduten. Zerbait berezia idazteko jarri behar zela paperaren aurrean, inoiz inork idatzi gabeko zerbait plazaratzeko, mundua harritzeko, euskal literaturari ekarpen berri bat egiteko, bestela ez zuela merezi ezer idaztea, esan zidan idazle honek solasaldian zehar.

Aho bete hortz gelditu nintzen, hasieran adarra jotzen ote zabilen ere pentsatu nuen. Serio ari zela ohartuta, euskarak bestelako literatura ere behar

zuela erantzun nion, erraz kontsumitzeko literatura, denbora pasa irakurtzen diren liburu horiek ere gure hizkuntzak behar zituela, irakurri ahala ahazten diren horiek, izan nobela beltza, fantastikoa edo historikoa.

Irakurri ahala ahazten diren liburu horiek ere beharrezkoak ditugula defendatu nuen eta gaur egun ere defendatzen jarraitzen dut.

Neronek ia egunero irakurtzeko ohitura dut. Ohitura edo beharra. Egunean zehar pilatutako neke zein kezka guztiak ahazteko botikarik eraginkorra delako. Eta askotan ez dut gogo berezirik

**IRAKURRI AHALA
AHAZTEN DIREN
LIBURUAK
BEHARREZKOAK
DITUGU**

izaten literatura hizki larriz esandakoa irakurtzekoa, nahikoa dut zerbait entretenigarria izatea esku artean.

Salbuespenak salbuespen, urte askoan halako generoak ia soilik erdaraz aurki nitzazkeen; gaur egun, ordea, badira halako generoetan espezializatuta dauden hainbat idazle zein argitaletxe.

Horregatik, hain zuzen, gaurko proposamena Alberto Ladron Aranaren *Arotzaren eskuak* da.

Ez dira asko nobela beltza jorratzen dituzten idazleak, baina horietako bat berau dugu.

Iruñean sortutako idazle honek hamaika liburu ditu argitaratuak, guztiak gomendagarriak, eta gaur proposatutako suspensezko liburu honekin hasieratik bukaera arte gozatuko dugu irakurketaz; eta erabat ahaztu egunean zehar pilatutako neke eta kezka. ■■■

Kultura eskoletara



MIRIAM ROMATET

Iparragirreraren jaiotzaren 200. urteurrena dugu aurten, eta badira mila asmo okasioa ospatzeko pentsatuak. Hala ere, nire adinaren bueltako askori Iparragirre hitza entzun eta berehala datozkigu Xenpelarren bertsoak “Iparragirre abila dela, askori diot aditzen...”, edo berak idatzitako “Ameriketara joan nintzen xentimorik gabe” oraindik ere kanta dezakegu ederki asko.

Gure kasuan, Joanito Dorronsorok Zumaiaiko ikastolan egindako lana da horren iturria, eta garai haietatik hona zorionez bertsoak eta bertsogintza ikastetxeetan ikasgai bihurtu dira; haiek irakastea ez dago ikastetxeko zuzendaritzaren edo irakasleen borondatearen edo tokiko udalen asmoen esku.

Baina kulturaren beste alor ugarietan ez da hala gertatzen, eta azken hilabeteetan bologolo dabil Aldundiak bultzatu nahi duen Eskola Kultura egitasmoaren kontua. Garai batean abian jarri zen Eskola Kirolaren eredia jarraitu nahi du, eta gure haurrek eskolan kultura zuzenean ezagutzeko,

bizitzeko aukera bermatu nahi dute.

Izan ere, gaur egun oso arrunta egiten zaigu gure umeak hilabetez igeriketa kanpainara joateko aukera, edo asteburua iritsi eta kirol ezberdinetan aritzekoa; orduak ematen ditugu gure kirolariak animatuz, euri-haizeari aurre eginez, eta, marmar bat edo beste tartean bada ere, eztabaidarik gabe.

Eta kulturarentzat aukera bera eskatzea?

Gaia konplexua da, erakunde ezberdinen nahiak eta eskumenak hartu behar dira kontuan, eskoletako curriculum tartean; eta bai, egia da zerbait gazteenekin landu nahi dugunean eskola orduen babesa nahi dugula, ikastetxe eta irakasleen konplizitatea, baina haien ordutegia ere sarritan txiklea

**NIK NAHIKO NUKE
IRUDIKATU ESKOLA
ORDUETAN
KULTURAREN ALORRAK
EZAGUTZEKO AUKERA**

bezala, luze eta zabal, dena estaltzera iritsi ezinik egoten dela.

Baina nik nahiko nuke irudikatu eskola orduetan kulturaren alorrak ezagutzeko aukera, gure gazteek aktiboki dauden alor ugarietatik batzuk bada ere ukitzea: musika ezberdinak entzun eta haietaz hitz egin, buztina edo pinturarekin narrastu, liburuak derrigor irakurtzea baino idazle bat idaztera daraman magia horretara hurbildu, antzerkiak eta dantzak gure eskoletako pasilloak betetzea...

Eta zergatik ez, hilean behin futbola, saskibaloia edo atletismoko saioen ordeztelako aukerak izatez: Zumaiaiko mugetan paseatu, herriko eraikin eta eskulturak aztertu, parroikiko organoa bertatik bertara ezagutu, Zarauzko Photomuseuma bisitatu, herriko sortzaileen lanak ikusi/entzun/gozatu eta agian baita beraiekin hitz egin ere, musika tresnak ikusi-ukitu eta ahal izanez gero abesten jarri... aukerak milaka ditugu.

Ea pixkanaka guztiok bakoitzak bere aldetik tiraka bidea egiten dugun. ■■■

Emozioen teoria



JUAN LUIS ROMATET

Ez dago hau konpontzeko modurik. Urte berrian gaude (beno, ez hain berria; otsailean gaude eta dagoeneko lehen neke sintomak nabari zaizkio eta) eta nire kasuan, behintzat, aurreko urteko akats berberak errepikatzen nabil.

Urte berriko asmoak jarri nituen. Bat: disko gehiagorik ez erostea. Eta betetzen ari nintzen Kaskezur talde nafarraren azken diskoa eskatu nuen arte. Bi: hain ahozabala ez izatea. Kuidadorik ez dago: asmo hori bost minuturako hautsi nuen, eta egunero zabaltzen dut ahoa astakeria bat botatzeko, edo erakusteko zer argia eta jakintsua naizen (ironia).

Badago behin eta berriz errepikatzen dudan beste akats bat, [“bakarra?”, diote ingurutik] eta da musikaren teoriari buruzko liburuak erostea. Musika ardatza duten liburu batzuk ikaragarri gustatu zaizkit. Hor dago, adibidez, Nick Hornbyren *High fidelity* nobela (eta pelikula). Musikarien biografia oso onak ere irakurri ditut. Agian onena Eels taldeko buru den Mark Oliver Everetten *Bilobek jakin beharko lituzketen gauzak* da; aparta da liburu hau. Asko gustatu zitzaidan, baita ere, Elvis Costelloren *Musika desleiala eta tinta ikusezina*. Apaletara begiratu eta Moby, Lemmy, Tom Petty edo Neil Youngen biografiak ikus ditzaket. Eta nire buruari galdetzen diot: Kolonbiako produkzio erdia sudurretik sartu duten batzuk nola akordatzten dira beraien bizitzako xehetasun txikienaz? Nik San Miguel gutxi batzuk (ejem, ejem) edan ditut nire bizitzan zehar eta 25 urtetik 27 edo 28ra bitarteko ia ezertaz ez naiz akordatzten. Agian hori da arazoa, San Miguelak edan izana. Eskerrak Cruzcampoak ez ziren...

Musikari buruzko liburu teorikoak ere erosten ditut noiz edo noiz, nahiz eta ez gustatu. Aspertu egiten naute, ez ditut ia inoiz bukatzen, eta hala ere... Musika emozioa da, kanta bat, disko bat, talde baten diskografia osoa behin eta berriz entzutera eramaten zaituena; kontzertu batean burua zoro gisa astintzera, edo saltoka hasi eta, besoa altxatuta, marruak botatzera bultzatzen zaituena. Beraz, zer inporta ote zait Lisabören azken diskoak zer zortzidun dituen edo zer konpasetan sortua dagoen.

Eta hori jakinda ere, sarritan, gehiegitan, errepikatzen dut akatsa. Orain gutxi Nick Colemanen *Ahotsak* liburua erosi nuen: 60. orrialdera ere ez naiz heldu. Eta ahozabal konpultsibo batek ahoa gehiegitan zabaltzen duen bezala, hurrengo batean liburu-dendara joan eta antzerako beste liburu bat erosiko dut. Izan ere, Paco Costasek zioen bezala, harri beraren kontra behin eta berriro tupust egiten duen animalia bakarra da gizakia. Zein den Paco Costas? Hori beste debate bat da. ■

**ZER INPORTA OTE ZAIT
LISABÖREN AZKEN
DISKOAK ZER
ZORTZIDUN DITUEN
EDO ZER KONPASETAN
SORTUA DAGOEN**



Endañetazumaia

ENDAÑETAK ez du saldu bakarrik egiten, arreta ere ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



ZUMAIA TXARTELA

VISA TXARTELAREKIN ATERKIA OPARI

TXARTEL BERRIA ATERATZEAGATIK EDO HAREKIN ORDAINTZEAGATIK

ZUMAIA txartela

1234 5678 9101 1234

AAAAAA BBBBBA CCCCCC

VISA

EPEA: Otsailean zehar edo agortu arte. Aterki bat pertsonako.

Zumaiko Udala **CAJA RURAL** **GERTU**



Gobernu Planaren aurkezpen saioa

Otsailak 20, osteguna
18:30ean Alondegiko Oxford aretoan

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA